

Illargi barria

SANTIAGO ONAINDIA

Zornotzan jaio zen 1909an. Karmeldarra. Idazle oparoa, argitaratzaile eta itzultzaile lanetan oso ezaguna, bizkaiera eta gipuzkera izan dira bere lan euskalkiak, prosaz nahiz bertsoz idatzi eta itzuli izan duelarik.

Egin dituen itzulpen ugarien artetik hauek aipa daitezke: Orati'ren odak (1955), R. Tagoreren *Iru poema* (1963), *Santa Teresaren On-bidea* (1963, Lino Akesolorekin batera), *Virgilio-ren Enearena* (1966), *Kolonbiar olerti-txorta* euskaraz (1968), Iztuetaren Gipuzkoako dantza gogoangarriak (1969), *Las cien mejores poesías amorias de la lengua vasca* (1975), etabar.

Illargi barria

SANTIAGO ONAINDIA

1

Sukaldea

ASTIRO niñoian ni solo bidexka zear, eguzki jausiak zeken antzera, bere azken-urrea gordetzean, an zeru-ertz urdin urrutian. Unetik unera baltzago zan itzalean murgilduz joian argia, ta lur alarguna —labore batzea egiña zan— ixilik zetzan.

Bertatik, illuna ikusgaitz igaroten eban abots zolia entzun zan goietan, eresi-aria dingiliz itxirik ordu ixiltsu aretan. Alan be, sukaldea an egoan zain aurki, zelai legorraren amaian, kañabera sail ostean, albo ta areka bigunen zainpean, kokot-ondo ta aran eze baltzez inguraturta.

Oin-ixil geratu nintzan pixkaten, izarren argitara. Zabal egoan lur sakona nire begi-aurrean, konta ezin ala sukalde besarkaturik, seaska ta ogez, ama-biotzez ta argi irazekiz, bizi-indar gazte ta alaitsez gaiñezka, gizarterako zenbat dan ez dakigun alaitasunez noski.

2

Ondartzetan

MUNDU guztiko ondartzetan batzen dira umeak. Muga bako zeru zabala baretsu agiri da euren buru gain; ura, oster, pai-

The Crescent Moon

RABINDRANAT TAGORE

The Home

I PACED alone on the road across the field while the sunset was hiding its last gold like a miser.

The daylight sank deeper and deeper into the darkness, and the widowed land, whose harvest had been reaped, lay silent.

Suddenly a boy's shrill voice rose into the sky. He traversed the dark unseen, leaving the track of his song across the hush of the evening.

His village home lay there at the end of the waste land, beyond the sugar-cane field, hidden among the shadows of the banana and the slender areca palm, the coconut and the dark green jack-fruit trees.

I stopped for a moment in my lonely way under the starlight, and saw spread before me the darkened earth surrounding with her arms countless homes furnished with cradles and beds, mothers' hearts and evening lamps, and young lives glad with a gladness that knows nothing of its value for the world.

On The Seashore

ON the seashore of endless worlds children meet.

ru bageko ta urduri, inguruan dabil nasu samar. Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak, zarataka ta dantzari.

Ondarrezko etxetxoak egiten dabez batzuk, magurio-koskoz jolasketan dara-gioe beste batzuk. Arein ontzia orri legor bat, ta itxas zabal sakonera jaurtzen dabe, irribarretsu. Aurtxoak mundu guztiko ondartzetan jolastu oi dira.

Ez dakie igeri, ez sarea afondu ta edatzen. Txirla-arrantzalea urperatu oi da ta saleroslaria bere ontzian ur-gaiñez ibilli; umetxoak, bitartean, arri-koskorak billatu ta eskuratzen dabez, ta gero bota, oso urrutira. Ez dabe ondasun ezkuturik billatzen, ez dakie sarerik edatzen, zabalatzen.

Itxasoa kurkuillotu ba'dadi oi-u-algaraz, ondar irribartsua dizdizka jarten da, erdi-laru. Olatu eriozkiñak, zentzun bako leloak kanta oi dautsiez umeai, amak kuma kulunka-kuluna bai'lerabil. Itxasoa umeakaz jolaska, ta ondarraren ezpan-irri larua dizdizka.

Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak. Ekaitza ara ona dabil biderik ez dauan zeru zear, ontziak be zador bageko itxasoan ondatzen-dira, azke dabil eriotza, ta alan be umeak jolasean diardue.

Mundu guztiko ondartzetan batzen dira, jai andia egiñez, ume guztiak.

3 Iturria

Bai al daki iñok nundik datorren umearen begietan txiribiri antzera dabillen loa?—Bai, diñoenez, maitagarrien base-rrian bizi ei da: lore-baratz bateko itzal-pean, ipurtargiz erdizka bakarrik argituta, zoragarritzko lili-pinpin bi dagoz dingilizka: loa andik bide dator, aurtxoaren begietan mun gozoa ezartera.

Bai al daki iñok nun jαιο zan ume loak artuaren ezpanetan egazka dabillen irri-

The infinite sky is motionless overhead and the restless water is boisterous. On the seashore of endless worlds the children meet with shouts and dances.

They build their houses with sand, and they play with empty shells. With withered leaves they weave their boats and smilingly float them on the vast deep. Children have their play on the seashore of worlds.

They know not how to swim, they know not how to cast nets. Pearl-fishers dive for pearls, merchants sail in their ships, while children gather pebbles and scatter them again. They seek not for hidden treasures, they know not how to cast nets.

The sea surges up with laughter, and pale gleams the smile of the sea-beach. Death-dealing waves sing meaningless ballads to the children, even like a mother while rocking her baby's cradle. The sea plays with children, and pale gleams the smile of the sea-beach.

On the seashore of endless worlds children meet. Tempest roams in the pathless sky, ships are wrecked in the trackless water, death is abroad and children play. On the seashore of endless worlds is the great meeting of children.

The Source

THE sleep that flits on baby's eyes—does anybody know from where it comes? Yes, there is a rumour that it has its dwelling where, in the fairy village among shadows of the forest dimly lit with glow-worms, there hang two shy buds of enchantment. From there it comes to kiss baby's eyes.

The smile that flickers on baby's lips when he sleeps—does anybody know where it was born? Yes, there is a rumour that a young pale beam of a crescent moon touched the edge of a vanishing

barre ezta? —Bai. Esan oi danez, udazken intzez garbiko goiz amesti batean, illargi barriaren erraiñu jantzirik, sor-erazo eban, nunbait, ume lokartuaren ezpatetan egazka dabillen irriño ezta.

Bai al daki norbaitek nun egon zan gordeta, orrenbeste urtez, umetxoaren aragitxoetan loratzen dan barri-samur gozo biguna? —Bai. Beraren amak, nes-kato zala, maitasunezko misteri leun ixillez igurtzi oi eban biotza, umetxoaren aragitxoetan loratu dan barri-samur gozo biguna, nunbait.

4

Orrela dozu umea

ORAINTXE berton, umeak nai ba'leu, egaz egingo leuke zerura. Baiña zer-edo-zer-gaitik ez doa egazka. Atsegin yako nunbait amatxoren bular gaiñean burua etzatea! Eta gero, adi-adi yagoko eten barik!

Itz zoragarri asko dakiz umeak; mundu onetan alan be, gitxi baiño eztira arek diñoana ulertzen dabenak. Baiña zerbait-gaitik ez dau berba egin nai. Bere amaren itzak ikasi, ez dau besterik gura. Or zergaitik jartzen dauan ain betarte ezta!

Urre-meta bat ta txirlarri asko ebazan umetxoak; alan eta guzti be, txiro ta ezeuki agertu zan mundu onetan. Baiña bae-ban zerbait era ortan agertzeko. Eskale billois antzera, oso aul agertu nai antza, amari aren leia ta ardura bizien diruzakua eskatzeko edo!

Txit jara ta korapilla bakoa zan umea itargi barriaren eskualdean. Baiña zer-edo-zer-gaitik itxi eban bere askatasuna. Bai, arek ba-daki ondo be amaren biotz-zokoan daukan poztasun muga-eza, ta askatasuna baiño bigunago da, daukan altzo samur eta besarte estu maitatia!

Poztasunezko aroan bizi zan, ta ez ekian negar egitea zer zanik. Baiña zer-edo-zer-gaitik aukeratu ebazan malkoak.

autumn cloud, and there the smile was first born in the dream of a dew-washed morning—the smile that flickers on baby's lips when he sleeps.

The sweet, soft freshness that blooms on baby's limbs —does anybody know where it was hidden so long? Yes, when the mother was a young girl it lay pervading her heart in tender and silent mystery of love—the sweet, soft freshness that has bloomed on baby's limbs.

Baby's Way

IF baby only wanted to, he could fly up to heaven this moment.

It is not for nothing that he does not leave us.

He loves to rest his head on mother's bosom, and cannot ever bear to lose sight of her.

Baby knows all manner of wise words, though few on earth can understand their meaning.

It is not for nothing that he never wants to speak.

The one thing he wants is to learn mother's words from mother's lips. That is why he looks so innocent.

Baby had a heap of gold and pearls, yet he came like a beggar on to this earth.

It is not for nothing he came in such a disguise.

This dear little naked mendicant pretends to be utterly helpless, so that he may beg for mother's wealth of love.

Baby was so free from every tie in the land of the tiny crescent moon.

It was not for nothing he gave up his freedom.

He knows that there is room for endless joy in mother's little corner of a heart, and it is sweeter far than liberty to be caught and pressed in her dear arms.

Izan be, ama arduraz betearen biotza irri-barreka irabazten ba'eban, edozein kez-kagaitik ixurten dituan negar-tantak erruki ta maitez lotzen dabe aren izatea.

5 Erronda ikus-eziña

Ai!, nok jantzi dautzu, ene seme, soiñe-kotxoa margoz? Nok jarri dautsa zure gorpuztxoari jantzi gorritzka ori? Gaur goizean, ziburu-ziburuka larrifñera urten zara, jolasketara. Baiña, esan eidazu, nok jantzi dautzu soiñeko ori margoz, kolorez?

Esan, arren, ene biotz-lorea, zek dagigizu barre? Poz ez titan daukazu ama, atarian geldi. Eskuak ikutzen dautzuz, ta aren apaingarriak ots dagie bulunba antzera, ta zuk, ene artzaintxo, dantzan diarduzu banbu-zotza eskuan. Baiña zek dagigizu barre, ene biotz-lorea?

Eskale bai'zintzaz, zer nai dozu orrela dingilizka, esku biakaz amari lepotik oratuta? Oi biotz txiki artega!, zeruari mundua ebatsi, ostu nai ete dautsazu, sagar-ale bai'litzan, eta gero zeure esku barru larrosazkoan ipiñi? Ai, eskaletxo!, zer da, esan, eskatzen daustazuna?

Pozez gaiñezka, aizeak ba-daroz zure orkatil estunetako kanpai txikien txintxin-ots gozoak. Barrez daukazu eguzkia, zu orrela jantzirik ikusita. Zerua zaindari dozu amaren besoetan lo zagozan bitartean: eta goiza beatz gaiñean datorkizu kuma ondora, begi ertzetan mun eztia ezartera. Aize poz-argiak badaroz zure orkatil estunetako kanpai txikien txintxin-ots gozoak.

Ames sorgiñen amandrea be or dator egunsentian, zeru zear, zureganaiño egazka. Mundu amaren biotz min guztia zurekin dozu, zure amaren biotzean. Zure leio azpian txirula joten dau izarren kanpariak. Eta Ames sorgiñen amandrea or

Baby never knew how to cry. He dwelt in the land of perfect bliss.

It is not for nothing he has chosen to shed tears.

Though with the smile of his dear face he draws mother's yearning heart to him, yet his little cries over tiny troubles weave the double bond of pity and love.

The Unheeded Pageant

AH, who was it coloured that little frock, my child, and covered your sweet limbs with that little red tunic?

You have come out in the morning to play in the courtyard, tottering and tumbling as you run.

But who was it coloured that little frock, my child?

What is it makes you laugh, my little life-bud?

Mother smiles at you standing on the threshold.

She claps her hands and her bracelets jingle, and you dance with your bamboo stick in your hand like a tiny little shepherd.

But what is it makes you laugh, my little life-bud?

O beggar, what do you beg for, clinging to mother's neck with both your hands?

O greedy heart, shall I pluck the world like a fruit from the sky to place it on your little rosy palm?

O beggar, what are you begging for? The wind carries away in glee the tinkling of your anklet bells.

The sun smiles and watches your toilet.

The sky watches over you when you sleep in your mother's arms, and the morning comes tiptoe to your bed and kisses your eyes.

The wind carries away in glee the tinkling of your anklet bells.

The fairy mistress of dreams is coming towards you, flying through the twilight sky.

dator egun-sentian, zeru zear, zureganai-ño egazka.

6 Lo-lapurra

—Ia, nun da ori, umetxoari begietako loa ostu dautson ori? Neuk astinduko dot!

Ama, txanbilla eskuratu ta gerrian ezarririk, auzora joan zan uretan. Eguerdia ortxe-ortxe zan. Umeak nekatuta egozan jolasean, paitak barriz ixilik ur-zingirran. Artzaintxoia lo egoan pikoaren itzalpean. Men ta begi-zoli agiri zan zigoña, ii-sail ertzean, luze etsita antza... Eta lo-lapurra eldu zan, eta umetxoaren begietatik loa artu ta joan zan egazka. Ama itzuli zanean, lau-oinka aurkitu eban umea lo-gela erdian.

—Ia, nun da ori, nire umetxoaren begietako loa lapurtu dauan ori? Neuk astinduko dot!

Nun gorde da maltzur alako ori? Oratuko dautsot eta sokaz lotu. An leza illuntsu aretan, arrikote urduri artean, errekatxoak txipli-txapla dagian lekuan egon bear dau. Bakul-oianeko gerizpe lo-erazlean billatuko dot, bai, uso-kumeak urruma gozoz dagozan txokoan, sorgiñen zintzarriak txintxin dagien gau izartu bake sakonean. Begi-zizta bat jaurtiko dot, bein gaututakoan, banbu-ibarreko ixiltasun antsiz betera, ots, ipurtargiak argi-itxaso diran lekura. Ta bidean iñor aurkitzen baldin ba'dot, galde egingo dautsot: Bai al daki iñok lo-lapurra nun gordeten dan?

—Ia, nun da ori, umearen begietatik loa artzen dauan ori? Neuk astinduko dot!

Nun, nun dago? Aurkituko ba'neu aurkitu, erakutsiko neuskio nik zelangoa izan; bai orixe! Aren gordelekuko arria jasoko neuke, ta gero, an osturik daukan lo guztia artu ta etxera eroango neuke oso-osorik. Lapurra, ostera, txit gogor lotuko neuke ego bietatik, eta ondoren

The world-mother keeps her seat by you in your mother's heart.

He who plays his music to the stars is standing at your window with his flute.

And the fairy mistress of dreams is coming towards you, flying through the twilight sky.

Sleep-Stealer

WHO stole sleep from baby's eyes? I must know.

Clasping her pitcher to her waist mother went to fetch water from the village near by.

It was noon. The children's playtime was over; the ducks in the pond were silent.

The shepherd boy lay asleep under the shadow of the banyan tree.

The crane stood grave and still in the swamp near the mango grove.

In the meanwhile the Sleep-stealer came and, snatching sleep from baby's eyes, flew away.

When mother came back she found baby travelling the room over on all fours.

Who stole sleep from our baby's eyes? I must know. I must find her and chain her up.

I must look into that dark cave, where, through boulders and scowling stones, trickles a tiny stream.

I must search in the drowsy shade of the *bakula* grove, where pigeons coo in their corner, and fairies' anklets tinkle in the stillness of starry nights.

In the evening I will peep into the whispering silence of the bamboo forest, where fireflies squander their light, and will ask every creature I meet, "Can anybody tell me where the Sleep-stealer lives?"

Who stole sleep from baby's eyes? I must know.

Shouldn't I give her a good lesson if I could only catch her.

ibai ertzean laga: dabillega antxe kañabe-
raz arrainketan, lili, zume ta ii artean...

Ta gabaz, azoka itxi ta aurtxoak ama-
ren magalean legokezanean, gau-txoriak
ara joango litzakioz ta belarrietara burlaz
ulu: Tira, geldotzar, ia orain nori ostuten
dauskan loa!

7 Asiera

—NUNDIK nentorren ni, zuk aurkitu nin-
duzunean?—itandu eutsan umeak bere
amari.

Arek, barre-lorea ezpan-gain ta mal-
ko-ñirñirra begian, semea bularraren
kontra estuturik, onela erantzun eutsan:
—Neure biotzean zengozan zu, ene mai-
te, beronen leia bizia bai zara. Nire ume-
tako jostaillu ta andrakilla artean zengo-
zan; eta nik, goizero, Jainko-irudia egi-
torduan, irudi ortan zengozan zu be. Bai
ta opari-maian be, gure etzeko Jainkoare-
kin; eta agurtzean, zeu be agurtzen zin-
dudazan. Ots, nire itxarokizun eta maita-
sun guztietan zengozan. Bai, zu bizi izan
zara ene bizian, eta amaren bizian be bai.
Zu zentozan, gizaldirik gizaldi, gure
sukaldea gorde ta zuzentzen dauan gogo
ezin-illaren magalean. Ni neskakta nin-
tzanean eta biotza orri-zabaldu, zu nire
inguru zenbiltzan inarika, usain gozo.
Zuk darizun samurtasun ezta antxiña
loratu yatan aragi gaztean, eguzkia kolo-
re bizi sortaldean urten baiño len. Zer-
utiko len-maitasuna, egun-sentiko argiaren
anai bizkia, mundura jatxi ziñean bizi-
tzaren ibaian eta azkenez neure biotzean
geratu...

Lilluraz, seme, zoratzen naz zuri be-
giraka, neure egin bait-zara guztia zarea-
la; galduko ete zaitudan bildurrez nauka-
zu. Zagoz emen, neure bular gaiñean oso
estu! Ai!, zer sorgin-indarrek ipiñi daust
beso auletan munduko ondasuna?

I would raid her nest and see where
she hoards all her stolen sleep.

I would plunder it all, and carry it
home.

I would bind her two wings securely,
set her on the bank of the river, and then
let her play at fishing with a reed among
the rushes and water-lilies.

When the marketing is over in the
evening, and the village children sit in
their mothers' laps, then the night birds
will mockingly din her ears with:

"Whose sleep will you steal now?"

The Beginning

"WHERE have I come from, where did you
pick me up?" the baby asked its mother.

She answered, half crying, half laugh-
ing, and clasping the baby to her
breast,—

"You were hidden in my heart as its
desire, my darling.

You were in the dolls of my child-
hood's games, and when with clay I made
the image of my god every morning, I
made and unmade you then.

You were enshrined with our house-
hold deity, in his worship I worshipped
you.

In all my hopes and my loves, in my
life, in the life of my mother you have
lived.

In the lap of the deathless Spirit who
rules our home you have been nursed for
ages.

When in girlhood my heart was open-
ing its petals, you hovered as a fragrance
about it.

Your tender softness bloomed in my
youthful limbs, like a glow in the sky
before the sunrise.

Heaven's first darling, twin-born with
the morning light, you have floated down
the stream of the world's life, and at last
you have stranded on my heart.

As I gaze on your face, mystery over-
whelms me; you who belong to all have
become mine.

8

Umearen mundua

AURKITU al ba'neu nik zokotxo bare nasai bat ene umearen munduko biotz berberan! An daukazala ba-dakit itz dagioen izarrak, ta arpegiraiño jasten yakon zerua, bere odei ergel ta ostarku pello kamutsez jolasteko. Aregan iñoiz ezer ez diñoen eta sekula zirkiñik ez dagien guzti orreik, bere leioraiño datoz txirristaka ta tutu-muxu ipuiñak eralgi oi dautsoez; bai ta zur-azpilletan opatu be margo aberatsezko jostailuak.

Egin al ba'neu nik ene aurraren pentamenak zearkatzen dauan bide ori, bere muga guztietatik urtenda, mandatari ez-ezagunak kondaira bako erregeen aginterrietan zentzun bageko mezuak ekarri ta eroan dabiltzan lekuraiño joan; ots, errazoiak bere legeakaz upeltxoak egin ta aizetara jaurtzen dauzan lekuraiño; egiak egitadeai euren kateak kentzen dautsiezana tokiraiño!

9

Noiz eta zergaitik

KOLOREZKO jostailuak dakartzudazanean, ene seme, orduan konturatzen naz zergaitik dan ainbeste margo-joku odei-uretan, eta lorak zergaitik dagozan ain dizditsu jantzita... Kolorezko jostailuak dakartzudazanean, ene seme.

Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko, orduan digart nik orriak zergaitik bizi diran eresi uts, eta olatuak zergaitik doazan kanta ta kanta lurraren biotz arrigarriraiño... Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko.

Zure esku ase-eziñok, ene seme, nik gozokiz betetea, orduan bai dakidala zergaitik dagoan eztiz gañezka lore-muiña, eta igaliak zergaitik astuntzen diran, ixil-ixilik, gurin samur ezkotsuz... Zure esku ase-eziñok, ene seme, nik gozokiz betetea.

For fear of losing you I hold you tight to my breast. What magic has snared the world's treasure in these slender arms of mine?»

Baby's World

I WISH I could take a quiet corner in the heart of my baby's very own world.

I know it has stars that talk to him, and a sky that stoops down to his face to amuse him with its silly clouds and rainbows.

Those who make believe to be dumb, and look as if they never could move, come creeping to his window with their stories and with trays crowded with bright toys.

I wish I could travel by the road that crosses baby's mind, and out beyond all bounds;

Where messengers run errands for no cause between the kingdoms of kings of no history;

Where Reason makes kites of her laws and flies them, and Truth sets Fact free from its fetters.

When And Why

WHEN I bring you coloured toys, my child, I understand why there is such a play of colours on clouds, on water, and why flowers are painted in tints—when I give coloured toys to you, my child.

When I sing to make you dance, I truly know why there is music in leaves, and why waves send their chorus of voices to the heart of the listening earth—when I sing to make you dance.

When I bring sweet things to your greedy hands, I know why there is honey in the cup of the flower, and why fruits are secretly filled with sweet juice—when I bring sweet things to your greedy hands.

When I kiss your face to make you smile, my darling, I surely understand what pleasure streams from the sky in

Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene maite, zure ezpanak irribarrez loratzeko, orduan dakit zein dan goiz-argian zerutik darion atsegiña, ta uda-aizeak nire gorputzari dakartsoen gozotasuna... Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene maite, zure ezpanak irribarrez loratzeko.

10 Izen txarra

Ez egizu, ene seme, negarrik egin. Oker gaiztoak dira nunbait, beti, errazoi barik, agirika daukazuzanak! Zikiña deitzen dautzue, idazten zengozanean atzamarrak eta arpegia tintaz orbandu zenduzalako? Eta ez dira lotsa? Illargi barriari, arek bere arpegia tintaz baltzitu daualako, zikiña deitzen azartuko ete litzakez?

Ene seme, edozertxogaitik errudun egiten zaitue. Bai, zure edozer txarto deritxoe. Jantzitxo urratu dozula, jolaske-tan? Eta origaitik, urratzaille deituko dautzue? Eta ez dira lotsatzen? Udazkeneko goizagaitik, zer esango ete leukie, ba, a odei urratu ostetik irri-barreka daukagunean?

Baiña, ene seme, ez egiezu zuk jaramonik egin. Ondo bat-banatuta daukiez bai zure utsegiteak! Mundu guztiak daki zein gozo-zale zarean! Eta origaitik salobera deitzen dautzue? Eta ez dira lotsa? Zelan deituko leuskigue, orduan, guri, zu gureztat ain atsegin izanik, mosuka jango zindukeguzan ezkeror?

11 Epaillea

ESAN beragaitik nai dozun beste, baiña nik zuk eta edozeinek baiño obeto dakidaz ene umearen akatsak.

Nik ez dot maite ona dalako, seme dodalako baiño. Eta zuk zelan jakin zengike bera zelako altxor dan, zuk bere irabazi ta utsak azta bardiñez neurritu nai dozuzan orrek? Nik zigor-azo bear dodanean, iñoiz baiño neureago dot. Negar

morning light, and what delight the summer breeze brings to my body—when I kiss you to make you smile.

Defamation

WHY are those tears in your eyes, my child?

How horrid of them to be always scolding you for nothing!

You have stained your fingers and face with ink while writing—is that why they call you dirty?

O, fie! Would they dare to call the full moon dirty because it has smudged its face with ink?

For every little trifle they blame you, my child. They are ready to find fault for nothing.

You tore your clothes while playing—is that why they call you untidy?

O, fie! What would they call an autumn morning that smiles through its ragged clouds?

Take no heed of what they say to you, my child.

They make a long list of your misdeeds.

Everybody knows how you love sweet things—is that why they call you greedy?

O, fie! What then would they call us who love you?

The Judge

SAY of him what you please, but I know my child's failings.

I do not love him because he is good, but because he is my little child.

How should you know how dear he can be when you try to weigh his merits against his faults?

When I must punish him he becomes all the more a part of my being.

ba'daragiot, nire biotzak be negar dagi arekin batera.

Neuk bakar-bakarrik dot eskubide osoa salatu nai nekarazteko, maite dauanak soilki zigortu dagike-ta.

12 Jostailuak

ZORI ontsua zu, auts artean etzunik, ordu luzeetan zotz orregaz jolasean zabiltzan mutiko ori! Barre egin bear nik, nai ta ez, zu goiz guztian, orrela jostari ikusita. Nik be ordu luzeetan, bat-banatu ta bat-banatu diardut, neure kontuak ondo atera nairik. Eta ba-leiteke zuk, niri begira, au pentsetea: «Ori bai jolasketa ergela! Goi-za alperrik galtzeko gogoa, nunbait!»

Ai, mutiko! Nik aitzua dot, aintxiñatik, zotz eta lupetz opillezko jolasketa! Jostailu garestiak baiño ez ditut opa, urre ta zidar-mordoak pillatu! Zu, aukeran dozun edozer gauzaz, pozarren jolas oi zara. Nik, ostera, aldia ta indarrak be bai, iñoiz euki ezingo dodazan gauzetan galdu daroadaz. Ene ontzitxo aulean igaro nai neuke neure gora-naiaren itxasoa; ta aitzu egiten yat, antza, neu be olgetan, jolasean nabillela!

13 Izarlarria

NEUK soilki esan neban: «Illuntzean, illargi bete biribilla kadabuaren adarretan nastuten danean, ezin ete geinkeo oratu?»

Baiña Dada'k, andiagoa da-ta, ixeka egin eustan, esanik: «Ezagutu yoadazan izakietatik geldoena az. Illargia oso urrin dago gugandik. Nok eskuz oratu?»

Nik erantzun neutson: «Dada, i bai azala kankaillu! Ama leiora urreratu ta guri jolasketan irribartsu begiratzan yauskukanean, ik uste dok ain urrin dagoa-la?»

When I cause his tears to come my heart weeps with him.

I alone have a right to blame and punish, for he only may chastise who loves.

Playthings

CHILD, how happy you are sitting in the dust, playing with a broken twig all the morning!

I smile at your play with that little bit of a broken twig.

I am busy with my accounts, adding up figures by the hour.

Perhaps you glance at me and think, "What a stupid game to spoil your morning with!"

Child, I have forgotten the art of being absorbed in sticks and mud-pies.

I seek out costly playthings, and gather lumps of gold and silver.

With whatever you find you create your glad games. I spend both my time and my strength over things I can never obtain.

In my frail canoe I struggle to cross the sea of desire, and forget that I too am playing a game.

The Astronomer

I ONLY said, "When in the evening the round full moon gets entangled among the branches of that *Kadam* tree, couldn't somebody catch it?"

But *dādā*¹ laughed at me and said, "Baby, you are the silliest child I have ever known. The moon is ever so far from us, how could anybody catch it?"

I said, "Dādā, how foolish you are! When mother looks out of her window and smiles down at us playing, would you call her far away?"

¹ Elder brother.

Dada'k esan eustan bigarrenez: «I bai ume inozo! Baiña, ikusi egik, nun aurkituko eunkek illargia bertan sartzeko aiña litzaken sare andi bat?»

Nik ari: «Eskuakaz be arrapatuko eunkek, ziur naiagok».

Baiña Dada'k, barre-purrustadaka, esan eustan: «Ez yoat neure bizi guztian be i lango izaki txaldanik ikusi! Illargia geiago urreratuko ba-litz, ikusiko eunkek zein andia dan!»

«Dada, zelako zentzun-bakokeriak erakusten dokazan eure eskolan!», esan neutson nik. Ama guri mosu emoteko makurtzen danean, ain andia iruditzen yak aren arpegia?

Baiña Dada'k oindiño be esaten daust: «I ergel az, i ergel az!»

14

Odeiak eta olatuak

AMA, an goian odeietan bizi diranak, deadar dagiste: «Entzun, olgetan diardugu egun-asieratik amairaiño; urrezko egunsentiaz jolaska ari gara, bai ta zidarrezko illargiaz be!» Nik galdegiten daustet: «Baiña, zelan igon nik zuek zagozen lekuraiño, orren goi?» Eta erantzuten daustie: «Erdi lurraren ertzeraiño, jaso eskuak zerura ta odeiakaz goratuko zaitugu!» «Ama begira daukat etxean», diñot nik, «zelan itxi nengike bakarrik eta igon?» Eta areik, irrikoi, igaroaz doaz iñarika. . .

Baiña nik ba-dakit, ama, ori baiño jolas-era politagoa. Begira: ni izango naz odei ta zu illargi. Neure esku biakin estalduko zaitut, eta sabaia izango da gure zeru oztin.

Olatuetan bizi diranak deadar dagiste: «Egun-abarretik gau illuneraño abeska daragoiogu; joan ta joan goaz beti arago ta ez dakigu nora goazan!» Nik itaun dagitset: «Baiña, zelan joango naz zuekaz ain urruti?» Jardesten daustie: «Zatoz itxasgalera, estutu ondo begiak, itxaron, eta

Still dādā-said, “You are a stupid child! But, baby, where could you find a net big enough to catch the moon with?”

I said, “Surely you could catch it with your hands.”

But dādā laughed and said, “You are the silliest child I have known. If it came nearer, you would see how big the moon is.”

I said, “Dādā, what nonsense they teach at your school! When mother bends her face down to kiss us, does her face look very big?”

But still dādā says, “You are a stupid child.”

Clouds And Waves

MOTHER, the folk who live up in the clouds call out to me—

“We play from the time we wake till the day ends.

We play with the golden dawn, we play with the silver moon.

I ask, “But how am I to get up to you?”

They answer, “Come to the edge of the earth, lift up your hands to the sky, and you will be taken up into the clouds.”

“My mother is waiting for me at home,” I say. “How can I leave her and come?”

Then they smile and float away.

But I know a nicer game than that, mother.

I shall be the cloud and you the moon.

I shall cover you with both my hands, and our house-top will be the blue sky.

The folk who live in the waves call out to me—

“We sing from morning till night; on and on we travel and know not where we pass.”

I ask, “But how am I to join you?”

olatuakaz narrastuko zaitugu!» Nik diñotset: «Nire amak ez dau iñoiz be gura gaututa ni kanpora joaterik. Zelan itxiko dot eta igesari emon?» Eta areik, barrezka zezindurik, aurrera doaz dantzari...

Baiña nik ba-dakit, ama, ori baiño jolas-joku obea. Ni izango naz olatu ta zu aretza ez-ezaguna. Pirilika ta pirilika nabilke, ta azkenez irrikoi zure bularrean ausiko naz. Eta ez dau munduan iñok jakingu gu biok nun gagozan!

15

Txanpaka-lorea

«ENTZUN, ama, —jolastearren bakarrik, gero— ni txanpaka-lore biurtuko ba'nintz, eta zugatz orren adartxo gorenengoan edegi, ta aizean barre-karkaraz kulunkatu, ta osto barri gaiñean dantzatu, ni nintzakenik jakingo ete zeunke, ama?» Zuk dei egingo zeuskit: «Ume, nun zagoz?» Eta nik barre egingo neuke neure kautan, eta geldi-geldi egon. Txit astiro zabalduko neukez neure orriak, eta zu ikusiko zindukedaz lanean.

«Bustialdia artu ondoren, ule ezkotua zeure sorbalda gaiñean zabal, txanpakaren gerizpean zear otoi egin oi dozun oxin txikiruntz joango ziñakezanean, somatuko zenduke, ama, lorearen usain gozoa, baiña nik jariona zanik ez zeunke jakingo. Bazkal ostein, zu leioan jarrita Ramayana irakurten zengokezanean, eta nire zugatzaren itzala ulean ta altzoan zuri emon, nik neure itzaltxo pitiña zure liburuaren orrian jaurtiko neuke, zu irakurten zengokezan lekuan atan be. Baiña, zuk igarriko zeuskio zure semearen itzaltxoa danik? Illuntzean, argontzia ixeturik, okullura ziñoakezanean, ni beingoan barriz jausiko nintzake lurrera ta barriro zure aur izan, eta ipuin bat esateko eskatuko neuskizu».

They tell me, “Come to the edge of the shore and stand with your eyes tight shut, and you will be carried out upon the waves.”

I say, “My mother always wants me at home in the evening—how can I leave her and go?”

Then they smile, dance and pass by.

But I know a better game than that.

I will be the waves and you will be a strange shore.

I shall roll on and on and on, and break upon your lap with laughter.

And no one in the world will know where we both are.

The *Champa* Flower

SUPPOSING I became a *champa* flower, just for fun, and grew on a branch high up that tree, and shook in the wind with laughter and danced upon the newly budded leaves, would you know me, mother?

You would call, “Baby, where are you?” and I should laugh to myself and keep quite quiet.

I should slyly open my petals and watch you at your work.

When after your bath, with wet hair spread on your shoulders, you walked through the shadow of the *champa* tree to the little court where you say your prayers, you would notice the scent of the flower, but not know that it came from me.

When after the midday meal you sat at the window reading *Ramayana*, and the tree's shadow fell over your hair and your lap, I should fling my wee little shadow on to the page of your book, just where you were reading.

But would you guess that it was the tiny shadow of your little child?

«Nun egon az i, gaizto ori?» «Ez dautzut esango, ama», alkarri esango geunskio.

16 Maitagarrien lurraldea

Инок ба'leki nun dagoan nire erregearen jauregia, aidean urtuko litzake jauregi ori. Zidar zuri dira aren ormak, urre zuri aren gainkia. Nire erregiña, zazpi barrube daukazan egoitzean bizi da; ta zazpi aginterriak balio eben aiña ordaindu bear izan zan arek daroan bitxia. Baiña itxi, arren, ama, ta ixil-ixilik esango dautzut nun dagoan nire erregearen jauregia. Begira: an, albaaka ontzia nun? Antxe, etxe-gaiñeko bazter aretan dago.

Errege-alaba lo datza, sekula inok ez ibilli ez ikusi bako zazpi itxasoan azken-ondartzan lilluratua. Ezin dau inok ludian, neronek ezik, idoro. Entzun: apainki dotorez estalita daukaz besoak, eta txirlarri-tantak belarrietan. Aren ule-mataza joria beeraiño eltzen yatzu. Nik neure makiltxo miresgarriz ikutzean, orduantxe itxartuko da; eta erribarre egitean, bitxiak jausiko yakoz ezpanetatik. Baiña itxi, arren, ama, ta ixilka esango dautzut: errege-alaba, an dago, albaaka ontzia aurkitzen dan etxe-gaiñeko bazter aretan.

Bustialdirako ordua dala-ta, ibaira zoazanean, ama, zatoz ona gora, etxe gaiñera. Ni jarrita nagoke, begira, an orma bien itzalak alkartzen diran lekutxoan. Katemeari izten dautsat bakar-bakarrik an egoten, neugaz batera, katemeak bai daki nun bizi dan ipuiñetako bizargillea. Baiña itxi egidazu, arren, ama, eta esango dautzut nun bizi dan ipuiñetako bizargillea: an bizi da, albaaka ontzia dagoan etxe-gaiñeko bazter aretan.

When in the evening you went to the cowshed with the lighted lamp in your hand, I should suddenly drop on to the earth again and be your own baby once more, and beg you to tell me a story.

“Where have you been, you naughty child?”

“I won't tell you, mother.” That's what you and I would say then.

Fairyland

If people came to know where my king's palace is, it would vanish into the air.

The walls are of white silver and the roof of shining gold.

The queen lives in a palace with seven courtyards, and she wears a jewel that cost all the wealth of seven kingdoms.

But let me tell you, mother, in a whisper, where my king's palace is.

It is at the corner of our terrace where the pot of the *tulsi* plant stands.

The princess lies sleeping on the far-away shore of the seven impassable seas.

There is none in the world who can find her but myself.

She has bracelets on her arms and pearl drops in her ears; her hair sweeps down upon the floor.

She will wake when I touch her with my magic wand, and jewels will fall from her lips when she smiles.

But let me whisper in your ear, mother; she is there in the corner of our terrace where the pot of the *tulsi* plant stands.

When it is time for you to go to the river for your bath, step up to that terrace on the roof.

I sit in the corner where the shadows of the walls meet together.

Only puss is allowed to come with me, for she knows where the barber in the story lives.

But let me whisper, mother, in your ear where the barber in the story lives.

17

Erkatuaren aberria

AMA, begira, zein illun biurtu dan zerua! Eguneko ze ordu ete? Jolasez gogait egin-da nago, bai, ta zugana nator. Ez al daki-zu zapatu dala, eskola gabeko eguna? Itxi lanari, ama; erdu, tira, jesarri zaitez neugaz leioan, eta konta egidazu ipuin bat. Esan, ama, nun zan, ni ez naz gogoratzten, nun egoan Tepantar'ko basamortua.

Euriak goibel jarri dau arratsa, iparretik egoraño. Zelan txatxamurtzen dauan zerua, atzazkal gorritz, oiñaztu amorratuak! Odeiak durundu dagienean, ama, atsegin yat biotz-aul sentitzea, ta ni bai goxoro zure ondoan geldi! Eta euria ekin eta ekin ordu luzez, nekaturik, banburrietan ots bardintsu dabilenean, eta aizeak intziri-mintziri leioetan dardar, ni bai ezti-bitsetan, ama, zure etzanguan bakarrik, zuri Tepantar basamortuko ipuiña entzuten!

Esan, ama, nun dago? Zein itxasoko ondartzan, nungo mendiaren azpian, zein erregeren aginterian aurkitzen da Tepantar basamortua? An ez da egongo —ziur naz—, emen lez, solo ta landak zarratzen dabezan lango esirik, ezta illun-abarrean nekazariak etxera itzultzean eta oianean bizi dan emakume egurginak bere egur-sorta zeira ekarteko egin daroan bide-zidor onein langorik be. Bedar oriztaz laukiak ondarrean, eta txori zar jakintsu biak abia daukien zugatz bakarra, besterik ez da egongo Tepantar basamortuan.

Niri, ama, zoragarria iruditzen yat, gaur lakoxe egun lainotsu batez, errege-*seme* gaztea bakarrik basamortu zear bere zaldi zidar arrean lau-oinka, iñok ikusi ez dauan itxasoz andiko gazteluan erraldoiak gorderik daukan errege-alaba billa. Esan, ama: euriak bere zapiz zeru-azkena estaltzen dauanean, eta oiñaztuak eztenkada zorrotza iduri, saltu dagianean, errege-*semea* gogoratuko ete da erregek bertanbera itxi dauan ama gaixoaz? Oko-

It is at the corner of the terrace where the pot of the *tulsi* plant stands.

The Land Of The Exile

MOTHER, the light has grown grey in the sky; I do not know what the time is.

There is no fun in my play, so I have come to you. It is Saturday, our holiday.

Leave off your work, mother; sit here by the window and tell me where the desert of Tepantar in the fairy tale is.

The shadow of the rains has covered the day from end to end.

The fierce lightning is scratching the sky with its nails.

When the clouds rumble and it thunders, I love to be afraid in my heart and cling to you.

When the heavy rain patters for hours on the bamboo leaves, and our windows shake and rattle at the gusts of wind, I like to sit alone in the room, mother, with you, and hear you talk about the desert of Tepantar in the fairy tale.

Where is it, mother, on the shore of what sea, at the foot of what hills, in the kingdom of what king?

There are no hedges there to mark the fields, no footpath across it by which the villagers reach their village in the evening, or the woman who gathers dry sticks in the forest can bring her load to the market. With patches of yellow grass in the sand and only one tree where the pair of wise old birds have their nest, lies the desert of Tepantar.

I can imagine how, on just such a cloudy day, the young son of the king is riding alone on a grey horse through the desert, in search of the princess who lies imprisoned in the giant's palace across that unknown water.

When the haze of the rain comes down in the distant sky, and lightning starts up like a sudden fit of pain, does he remember his unhappy mother, abandoned by the king, sweeping the cow-

llua giñarrez garbitzen diardu onek eta begiak zapiz legortzen... Eta bere semea, Tepantar basamortuan barna lau-oinka, oroituko ete ama gaixoaz?

Ama, begira, oindiñok egunak dirau; baiña, gaua noiz jausiko. Ez dator iñor auzoko bide zear. Artzaintxoak itxiko zituan onezkero larre ta zelaiak, eta orain etxean dagoke. Soloetako gizonak be lanari itxi ta azpikietan etzan dira euren txaboletako itzalpean, odei itsusiei begira. Orain, ama, ez egidazu ikastekorik esan; itxi nasai liburuak, mai gaiñean. Neure aita lez andi naitenean, ikasi bear dan guztia ikasiko dot. Baiña gaur, gaur bakarrik, ama, esaidazu, ez naz ba gogorutzen, Tepantar'ko basamortua nun dagoan!

18

Euri-eguna

ODEI ixillak pillotuz doiaz arin-aringa, basoko goiertz baltzizkan. (Ez urten, ume!) Zingira-ezpana lerroz lerro ingurutzen daben palmondoak zabuka dagoz, lotan lez, zeru ituntxoari buruz. Muturik itxas-kaioak, ego loiak bilduta, tamarindoaren adarkimuetan. Itzal bat be, gero ta sakonago, ibaiaren sortalde-muturrean dabil errondari.

(Entzun, esiko erromaran lotuta dagon beiak orru dagi amorru bizitan! Seme, itxain emen, kortara eroatera noia-ta). Astrapaladan doiaz gizonak zelai, solo ta landa ureztatu zear, ur-maeketatik urtendako arraiñak artzera nunbait. Errekaztoak egiñik doia ura bidexkaetan; jolas antzo amagandik iges egin dauan ume irribarretsua dirudi.

(Ixillik; ontzidunari deiez dago norbait, ubidean! Egun-argia, barriz, joan doa, seme, ta ontzia itxita daukagu!) Itxurra danez, lau-oinka datorren euri zorroaren gaiñez dabilkigu zerua, zamari bai'litzan. Ibaia, eroapen bage, nastu ta iñarrosi yaku. Emakumeak iraduz, ariñe-

sull and wiping her eyes, while he rides through the desert of Tepantar in the fairy tale?

See, mother, it is almost dark before the day is over, and there are no travelers yonder on the village road.

The shepherd boy has gone home early from the pasture, and men have left their fields to sit on mats under the eaves of their huts, watching the scowling clouds.

Mother, I have left all my books on the shelf—do not ask me to do my lessons now.

When I grow up and am big like my father, I shall learn all that must be learnt.

But just for to-day, tell me, mother, where the desert of Tepantar in the fairy tale is.

The Rainy Day

SULLEN clouds are gathering fast over the black fringe of the forest.

O child, do not go out!

The palm trees in a row by the lake are smiting their heads against the dismal sky; the crows with their draggled wings are silent on the tamarind branches, and the eastern bank of the river is haunted by a deepening gloom.

Our cow is lowing loud, tied at the fence.

O child, wait here till I bring her into the stall.

Men have crowded into the flooded field to catch the fishes as they escape from the overflowing ponds; the rain-water is running in rills through the narrow lanes like a laughing boy who has run away from his mother to tease her.

Listen, someone is shouting for the boatman at the ford.

O child, the daylight is dim, and the crossing at the ferry is closed.

ketan datoz Ganges'tik, edarrak sorki gaiñetan.

(Argiak gertutzer a noia, gaur goizetik illuntzen dau-ta! Ez urten, seme!) Azokako bidetik ez dabil arimarik. Errekara jasten dan kalea irristakor dago ta errez labantzen. Orruz dauleazu aizea; sare artean arrapatu pizti bat dirudi bambu-ostotzan burrukari.

19 Ingizko ontziak

EGUNERO, neure ingizko ontzitxoak jaurtzen ditut, bata bestearen atzetik, ur-beera. Izki baltz andiz margotuta neure ize-na daroie, bai ta neure erriarena be. Eltzen diran ondartzaz ez-ezagunean norbaitek aurkitu ba'daiz, jakingo dau arek ni nor nazan. Ene etxeko baratzean azitako siuli-loraz beterik doiaz nire ontzitxoak; eta, ziur nago, goiz-urratzean batutako lore-pipil oneik, gabea, onez elduko dira lurrera.

Ur ibillian jaurtzen dodaz neure ingizko ontzitxoak, eta begiak zerurantzaz jasotzen dodazanean, arat-onat dabiltzan odeiak ikusten ditut, euren oial zuriak aizez beterik dabezala... Ez dakit nik zerutiko nire zein adiskidek botatzen dabezan aize-beera, nire ontziaz ibilli daitezana... Illunkeran neure esku artean arpegia gorderik, ames dagit, ames nire ingizko ontziak ur gaiñez doazala gero ta urriñago, gau erdiko izarpean. Ames-maitagarriak zuzendu daroez, lillurakorezko otzaratxoz gaiñezka.

20 Arrantzalea

MADU ontzidunaren txalupa geldit dago aspalditik Rangun'go kaian, yute-zama banandu barik. Madu'k akuran edo alo-gerez itxiko ba'leust bera, eun arraun eta bost edo sei aize-oial ipiñiko neuskioz, eta neuk eroango neunke oso eratsu. Ez

The sky seems to ride fast upon the madly rushing rain; the water in the river is loud and impatient; women have hastened home early from the Ganges with their filled pitchers.

The evening lamps must be made ready.

O child, do not go out!

The road to the market is desolate, the lane to the river is slippery. The wind is roaring and struggling among the bamboo branches like a wild beast tangled in a net.

Paper Boats

DAY by day I float my paper boats one by one down the running stream.

In big black letters I write my name on them and the name of the village where I live.

I hope that someone in some strange land will find them and know who I am.

I load my little boats with *shiuli* flowers from our garden, and hope that these blooms of the dawn will be carried safely to land in the night.

I launch my paper boats and look up into the sky and see the little clouds setting their white bulging sails.

I know not what playmate of mine in the sky sends them down the air to race with my boats!

When night comes I bury my face in my arms and dream that my paper boats float on and on under the midnight stars.

The fairies of sleep are sailing in them, and the lading is their baskets full of dreams.

The Sailor

THE boat of the boatman Madhu is moored at the wharf of Rajgunj.

It is uselessly laden with jute, and has been lying there idle for ever so long.

neunke, baiña, itxasegingo azoka txaldan orreitara, zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatu ta igaro baiño!

Alan be zuk, ama, ez dozu bazter orretan nigaitik negar egingo, ezta alan? Ez naz gero ni izango Ramatxandra lez; arek bada, basora joanda, amalau urte egin ebazan etxera itzultzen! Ni ipuiñetako erregegai izango naitzuz; atsegin yatazan gauzaz ontzia beteko dot, eta adiskide Asu be neugaz daroaket bertan! Eta kanta-kantari zearkatuko doguz zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak!

Goiz-goizetik, egun-sentian, itxasoratu-tuko gara. Eguerdirako, barriz, gu Errege ez-ezagunaren lurraldera elduak gara aurki. Gero, Tirpurni'ko itxas-adarrari ikutuz, Tepantar'ko basamortua atzean itxiko dogu. Gu etxera biurtu orduko illundua dagoke. Eta guk ikusia oro edestuko dautzut! Eta zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatuko ditut!

21

Beste ur-ertza

O!, irrikan ta opa biziz nago ibaiaren bestaldera joan naita! Batel areik, lerroz lerro, banbu-taketetatik lotuta endu dagozan ur-ertzera joan nai neuke; goizero an, ur zear doiaz igeri, areak lepoan, urriñetako solo-lanetara, gizon beargiñak; abere-zaiñak be, talde orrutsuakaz, iñarika igarotzen dabe ura, ertzez-ertz larratzeko. Illuntzean gero, andik biurtzen dira etxera guzti-guztiak, ugarte suileko basbedar artean txakalak urubi ta arrama dagielarik.

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egi-tean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

If he would only lend me his boat, I should man her with a hundred oars, and hoist sails, five or six or seven.

I should never steer her to stupid markets.

I should sail the seven seas and the thirteen rivers of fairyland.

But, mother, you won't weep for me in a corner.

I am not going into the forest like Ramachandra to come back only after fourteen years.

I shall become the prince of the story, and fill my boat with whatever I like.

I shall take my friend Ashu with me. We shall sail merrily across the seven seas and the thirteen rivers of fairyland.

We shall set sail in the early morning light.

When at noontide you are bathing at the pond, we shall be in the land of a strange king.

We shall pass the ford of Tirpurni, and leave behind us the desert of Tepantar.

When we come back it will be getting dark, and I shall tell you of all that we have seen.

I shall cross the seven seas and the thirteen rivers of fairyland.

The Further Bank

I LONG to go over there to the further bank of the river,

Where those boats are tied to the bamboo poles in a line;

